

## Bestelako Xedapenak

### HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

4754

AGINDUA, 2009ko ekainaren 16koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, EAeko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salak Badaezpadako Neurrien 592/09-2 Pieza Berezian -Plataforma por la Libertad de Elección Lingüística izenekoak aurkeztutako administrazioarekiko auzi errekurtsoren ondoriozkoan- emandako autoa betetzeko xedatzen duena.

Ikusi du EAeko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salak Badaezpadako Neurrien 592/09-2 Pieza Berezia, Plataforma por la Libertad de Elección Lingüística izenekoak aurkeztutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoren ondoriozkoa, non auzi-jartzaileak eskatzen baitu Batxilergoko curriculuma zehaztu, eta Euskal Autonomia Erkidegoan ikaskuntza horiek ezartzen dituen 2009ko otsailaren 3ko 23/2009 Dekretuko (2009ko otsailaren 27ko EHAA, 41. zenbakia) 20. artikulua indargabetezko. 2009ko maiatzaren 27ko autoaren bidez, honako neurri hau hartzea erabaki zen:

Zati batean baiestea 2009ko otsailaren 3ko 23/2009 Dekretuko 20. artikulua indargabetezko eskabidea; honako hau, hain zuzen ere:

«Euskara izango da komunikazio-hizkuntza nagusia eskola-eremuan».

Horregatik, hau

XEDATU DUT:

**Lehenengoa.**– Auto hori hitzez hitz betetzeko agintzea.

**Bigarrena.**– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko ekainaren 16a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,  
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.

## Otras Disposiciones

### DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

4754

ORDEN de 16 de junio de 2009, de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, por la que se dispone el cumplimiento del Auto de la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, dictado en la Pieza Separada de Medidas Precautorias 592/09-2 dimanante del recurso contencioso-administrativo interpuesto por Plataforma por la Libertad de Elección Lingüística.

Vista por la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco la pieza separada de Medidas Precautorias 592/09-2 dimanante del recurso contencioso-administrativo interpuesto por Plataforma por la Libertad de Elección Lingüística en el que se solicita por la parte actora la suspensión del artículo 20 del Decreto 23/2009, de 3 de febrero de 2009, por el que se establece el currículo de Bachillerato y se implantan estas enseñanzas en la Comunidad Autónoma del País Vasco (BOPV n.º 41, de 27-02-2009), se dictó Auto de fecha 27 de mayo de 2009, en el que la Sala acordó lo siguiente:

Estimar parcialmente la solicitud de suspensión del artículo 20 del Decreto 23/2009, de 3 de febrero de 2009, accediendo a la suspensión de la vigencia del inciso:

«El euskera será la principal lengua vehicular en el ámbito escolar».

En su virtud,

DISPONGO:

**Primero.**– Ordenar el cumplimiento del citado auto en sus propios términos.

**Segundo.**– Ordenar la inserción de la presente Orden en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 16 de junio de 2009.

La Consejera de Educación, Universidades e Investigación,  
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.